

9. Euskararen hiztegi etimologikoa

- haitz (aizkora, aitzurra...)
- ama-aita
- giz (gizaki, gizen..) eta biz (bizi, bizar, bizkor...).

HAITZ, ATX ERROA

<p>Nabera</p>	<p>Agian <i>harkaitz</i> hitzaren laburtzapena edo oihartzuna izan daiteke (harkaitz-haitz)</p> <p>Nire ustez AIA-TZ osagaiak ditu. Batetik, AIA erro murrizteza, hainbat azpi-erroren osagaia (guantxeraz ere “aia” harria, harkaitza omen da); bestetik –TZ atzizkia, beharbada euskararen atzizki zaharrena, nire ustez</p> <p>*AUZ erro garrantzitsuaren gain-erabilpenetik sortua (auz/oz/zo/os/so....). AIA-TZ→HAITZ: bigarren A desagertzean, hasperenduna sortzen da aurrean</p> <p>*AUZ honen esanahiak <i>altua, parekoa, kalitatezkoa</i> dira nire azterketen arabera.</p> <p>Beraz, esangurari dagokionez, HAITZ: harri nabarmena, kalitatezko harria. Azken hau balitz Silex harriari erreferentzia da, tresnak egiteko lehengai historialurrean.</p> <p>Hona haitz-etik sortutako tresna batzuk: AIZTO (*haitz-to = haitz txikia; AIZTUR (*haizto-tur = artaziak); (H)AITZUR (*haizto-urra, lurra eta abar urratzeko tresna); (A)IZKORA (*haizto-ola, *haizto-ora; * haitz-aho-ora): haizto tresna edo <i>heldulekua duen haiztoa edo haitza</i></p>
<p>Kapanaga</p>	<p><i>lz</i> izatasuna adierazten duen erroetako bat da:</p> <p>aitz (a-itz) aizkora (a-iz-k-or-a) non “or” “ar” izatasuna adierazten duen fonemaren aldakia den aiztur (a-iz-t-ur) aitzur (a-iz-t-ur) azpil (a-iz-bil) Gehiago: aizto, azkon...</p>
<p>Zubiaga</p>	<p>Arketipoa: uTu arketipoaren araberrako erroa da ATX/AITZ ATE “mendate” ereduaren eratorria da, hala ATXARTE/-AITZGORRI.</p> <p>Osagaiak: - <i>ekura>egura>gora</i> - <i>ki</i> zatikia adierazteko atzizkia - <i>ar</i> jokera adierazteko atzizkia - <i>kor</i> jokera adierazteko atzizkia</p> <p>Mittoa: + <i>ekura>egura</i> “mendi santutegia, <i>gurena</i>” + <i>Ishkur(s)</i> trumoi jainkoak mitografian <i>haizkora</i> du eskuman eta oinestua oratzeko hiruortza ezkerrean eta <i>xekor</i> abere gainean trostatzen da hodeietan. + <i>aizkora</i> lanabesak oinestutik <i>gordetzeko</i> edo oinestua <i>kortatzeko</i>, “<i>kortetarako</i> lurra zatitu, <i>cortar, cuartear</i>” indarra zeukan.</p>
<p>lhitza</p>	<p><u>HAITZ</u> 1187. urtean idatzitako hitza. Idatziz 832 urte daukana.</p> <p>AITZURRA, ATXURRA haitz eta zura, hurbil daukagun haitza, eskura daukagun haitza AIZPITARTE haitz bi tarte, bi haitzen artean AIZTOA haitztoa, haitz txikia, kuxiloa</p>

	<p>ATXA haitza HAITZAKI haitzaren zatiki HAITZAMA haitzaren ama, haitzaren barruko alde gogorragoa dena, mamia. HAITZARTE, ATXARTE haitzen artean HAITZULO (1855). haitzezko zuloa. HAITZURDIN, ATXURDIN (1905) haitz urdin, Aiurdin, (a)Txurdinaga, HAIZKORA haitz gora, haitza gora HAIZNEGAR haitzaren negarra, estalaktita ORRATZA (ORRAZIA, ORRAZTU...) hor dagoen haitza, bertan dugun haitza ZUHAITZA zutik dagoen haitza ZULAKAITZ zulatzeko haitza, zuloak egiteko haitza, zinzela</p>
Arnaiz	<p>HAITZ = Peña (aitz). Tambien es la contraccion de aritz=roble En Ibero, Exi = roca.</p> <p>ATX = peña, variacion de aitz, interjeccion para el ganado,dolor,ansia,anhelo,precipitacion. En Ibero, Exi = Roca</p>
Mujika	<p>AITZ: Izadian oroi baiezko ugaritasuna eginkeran: arria, arcaísta. ATX: ona baiezkoa (tx) txikia ereduak atxurra.</p>

AMA-AITA HITZAK

<p>Naberan</p>	<p>AMA Hitz ia unibertsala eta erdi onomatopeia. Seguruenik ABA errotik dator. Esangura: aho, buru, goi, printzipio, printzipal, sorrera. Hau da, gauza guztien <i>hasiera</i>, <i>printzipala</i> eta <i>amaiera</i>.</p> <p>AITA Hau beste kontu bat da, zailagoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - AITA/AITE(A): ahaide hitzaren eratorria?. Horrela balitz, *aho-(ha)-ide, edo, *anai-(k)ide, <i>enbor bereko kide</i>, berbereek AIT hitzari ematen dioten antzeko esangurarekin: leinua (Ait Merghat, Ait Sedrat...) - Formari dagokionez, ATA da beharbada jatorrizkoa, Iruña Okan ere hala agertzen da, eta gero AITA, AITTA... bilakatu. <p>Seguruenik, hasiera batean ez zeukan maskulinitasun zentzurik (hitz jentilizio zatekeen), harik eta AMA hitzarekin kontrajarri arte.</p>
<p>Kapanaga</p>	<p>Ahoski hau (a) ezinbestezkoa dugu. Hasieratik du hizkeraren muintan zeregin berezia eta beste ahoski guztien gain, bere eragina agertzen du. "a" ahotsa gizakiaren aurretiko gizaberearen ahoski bakarra izan daiteke.</p> <p>Beraz, gizakia, eboluzio bidez taiutzen joan bada, eta noizbait hitz egiten hasi baldin bazan, etzan izango bat batean, ez eta "norbaitek" irakatsi ziolako. Astiro eta eperik epera, gutxitik gehiagora joan beharko zuen, bai gauzak ezagutzen, bai eta, sentipenak sentitzen eta eretzi eta usteak erasortu eta ugaritzen. Eta hitz berriak sortzen.</p> <p>Fonema honek garapen hau izan zuen:</p> <p style="padding-left: 40px;">A -> aua = ava = aba -> ama A -> adda = atta -> atte / atta / aita</p>
<p>Zubiaga</p>	<p>Arketipoa: aN arketipoaren araberrako erroa</p> <p>AMA bera da AN "zeru" lehen arketipoaren sortzailea eta NI/NEU, lehen pertsona da ohargabea.</p> <p>AITA UTU "iduzki" arketipoaren eratorria da eta TTO/TXO/TU/TI..., bigarren pertsona da ohargabea. Bien elkartea NO eta TO gurasoak dira antxinakoen terminologian.</p>
<p>lhitza</p>	<p><u>AITA</u> T (te) eme baino gogorragoa den aldetik, gizonezkoa, baikorra, baina lehenago apurtzen da, lehenago hiltzen da. Aita hitza hainbeste aldakiekin, oraindik bere burua ari da bilatzen.</p> <p><u>AMA</u> eme, emea bigunagoa den aldetik, malguagoa da, eta gehiago irauntzen du, beranduago hiltzen baita. Ezkorra. Ama, bestela, bakarra da.</p> <p>Baina TE eta EME behar dira eta MAITE osatzen dute: (a)MA eta aITE (emaitea, ematea). Berrero ere AMA aurretik. AITArekiko etengabeko erkaketan. Beraz lehenago eta lehenengo biguntasuna, emetasuna, amatasuna, geroago gogortasuna, aitatasuna, tartean seme, ume, non hasieran sEMEEak alabak ziren ere, emearen -ama-ren biguntasunagatik.</p>

	<p>Gero etorri zen, edo ekarri genuen aIABA kontzeptua, ABA horrengatik ahaidetasun maila bat adierazten duena.</p> <p>ARREME (hartu eta eman) eta MAITE (eman denboran) gauza bera dira: malgua den umea jaiotzen zaienean, gurasoak.</p>
Arnaiz	<p>AMA = Madre (familia), La Madre (Religion usko-mediterranea), Ej.:AMA-ATIN-AS=La Señora de la Puerta de la Oscuridad</p> <p>-Ibero:Madre (familia),La Madre (Religion Usko-mediterranea).</p> <p>-Los mismos significados y terminos se encuentran en las siguientes lenguas uskomediterraneas: Iberica, tartesica, etrusca, minoica, bereber, punico-cartaginesa, hitita, sumeria, eblaica, elamita, egipcia, Descargar informacion de Ref 3 http://chopo.pntic.mec.es/biolmol ,capitulo 9.</p> <p>AITA = Padre, sin ambigüedades de dialectos euskera o de evolucion temporal de euskera.</p> <p>Tambien se encuentra en ibero, etrusco, sumerio, egipcio, con el mismo significado (Ref 3,cap 9).</p> <p>ATA=La Puerta (religion usko mediterranea), aunque aparezca al lado de crucificados o en un contexto que parezca inducir a traducir "padre" en los graffiti de Iruña Oka, es posiblemente porque la nueva religion cristiana, quiera sustituir a la antigua usko-mediterranea de ATA y AMA, aprovechando similitudes semantico fonológicas.</p> <p>Lo mismo ocurre con ADAN, ADAN o EDEN en el Genesis. ADAN no es nombrado como persona en todo el relato del Genesis, es EDEN, ATA o ATAN,de la antigua religion. Solo en el versiculo 4:25 de la Biblia de Jerusalem, aparece Adan como padre de Set. Y no se le menciona más. Solo la religion judeo-cristiana lo ha personificado.</p> <p>ATA se encuentra en las mismas lenguas usko-mediterraneas que AMA. Observese que AITA, no se encuentra en otras lenguas usko-mediterraneas, mas que las señaladas mas arriba. El concepto es posterior a la diversificacion inicial.</p>
Mujika	<p>AM: Baretua(m) eginkera baiezkoa(a).</p> <p>AMA: Ona(a) eginkera baretua(m) ona, baikorra(a). Gauz baretua, baña eginkeran iarrikodana. Esan naia: emea semeak dituna.</p> <p>Eme´k, ezin duela eginkeran izan, indar baiezkoa ez duelako. Ta ama, izando da, arrak kemen ernedunakin betetzen dutenean. Arrak, ematen dio emeari, ez du kemen baiezkoa amak.</p> <p>AITA: Duena edo betea(ta) adimen ta izadi oroitza ona baiezkoa egille(ai). Izadito oroitza ernedun araudiak dituenak, aban kemenakin daudenak, Ta aluan semealabak ernatzen denean, emea ama egin, ta iaio euzkeldunak.</p>

GIZ ERROA

<p>Naberan</p>	<p><u>GIZ-</u> Gauza ziurrik ez dagoenean, hipotesi eta iradokizunetara jo behar. Hasteko GIZ eta GI erro diferenteak direla deritzot.</p> <p>-GI- erroari dagozkio larruazalarekin, muskuluekin eta beste organo batzuekin zerikusia duten hitzak: gibel, haragi, gizen, gia (larruazal azpiko mintza), eta abar.</p> <p>Beraz, GIZ hizki konposatua izan daiteke: *gi-iz; gu-iz</p> <ul style="list-style-type: none"> - lehenengo kasuan, (IZ argia, bizia dela emanetz), <i>argia</i>, <i>adimena</i>, <i>bizia duen gorputza</i> litzateke esangura. - Bigarren kasuan (gu-iz), <i>gu-bizia</i>, <i>gu-energia</i> edo horrelako zerbait adieraziko luke, baina betiere gu-taldea nabarmenduz. Hipotesi hau indartzen du Kaukaso aldean KOTSI (migreliaz), GOTSI, KODSI (lazieraz) “giza”-ren senideak izateak. <p>Horren arabera, GIZAKI (*giza-ki), GIZA izaerakoa; GIZELI (*giza-eli), giza aldra;</p> <p>GIZON (*giz-on) gu, iz eta -on erroez osatua (-on, nire ustez, aditza da), bizi garenok edo halakoren bat adieraziz. Beraz, baliteke hasiera batean <i>gizon</i> hitza neutroa izatean, harik eta ema(kume) hitzarekin kontrajarri zen arte.</p>
<p>Kapanaga</p>	<p>/z izatasuna adierazten duen erroetako bat da. Hizkeren garatze edo eboluzio bide bat dela eta, hasierako fonemen formak ugaritzeko bidea izan zen. /z hiru forma bereizi bide dira: iz, biz eta giz.</p> <p>Giz-etik sortutako berbak: gizon (gixon), gixar (gihar), gizen (gixen), gibel (giz-bel), giltzurri (giz-urdi)</p> <p>Biz-etik sortutakoak: bizi, bihots (biz-hots), biriki, bizkor (biz-k-or*), biztu (biz-tu), bizar (biz-ar)</p>
<p>Zubiaga</p>	<p>Z/IZI UTU arketipoagandiko IZpia “leinuru” da, IZI “ehizaki” bezala, zerbait mugikor eta <i>bizidun</i> oihanean.</p> <p>GIZ/GIZA aurreko formaren jarripena da: IZ jainko arketipoa dela zuzenean eta GIZ, forma gizatua, giza arketipoduna, jainkoen IZa KA gaian “gorputzean” duena.</p> <p>BIZI lehengoaren bide beretik, baina gizatasuna BA baitan duena.</p>
<p>Ihiza</p>	<p>GIZ (G)IZ izatearen funtsa. Oinarria. G aldakorra izatean, IZ zihurragoa da eta hortan oinarritzen gara, IZateko. Beraz (G) IZ da generorik gabeko aurreko egoera.</p> <p>GIZ- hasieran G hori ez zen g izan, oso hizki aldakorra delako eta H, I, J, K, Y...rainoko atea delako. Beraz zaila da jatorrizkoa ez izatean, aztertzea. G, eztarriko hots aldakorra; I, argitasuna, inteligentzia, ikusmena, begia; Z, azkena, jakinduria gelditua. Beraz eztarriko hots aldakor argitsuaren azken jakinduria</p> <p>GIZA hitz honi ez diogu aurkitzen arra-rekiko harremanik, gure ustez jatorrizko gizona arra baita, emakumeak emean jatorria daukan bezala.</p> <p>GIZABANAKOA pertsona bakoitza</p> <p>GIZAKIA izakia jantzi barik, izaki hutsa. Genero barik, ez arra, ez emea.</p>

	<p>GIZARTE1627. urtea. Giza arte GIZATERIA munduko biztanlego osoa GIZEN lodi, gizon GIZENDU loditu, gizondu GIZON giz on. On honi ez diogu aurkitzen ona izatearen esanahia, ez bait dago giz txarrik, eme txarrik edo ar txarrik hizkuntzan. Beraz gizon hitzak ordezkatu du ar hitza, gure ustez. GIZONDU Gaztea gizon bihurtu, gaztaroa utzi eta gizonen munduan sartu GIZONKI Gizontasuna GIZOTSO Gizona eta otsoaren itxura daukan mitologiaren izakia</p> <p><u>BIZ</u> BIZAR biz-ar, emea ez den biz-a. Biz-etik zabaltzen den garra, biz-aren luzapena. Beraz, bizarra aurretik eta bizkarra atzetik zabaltzen diren bera dira, bizkarra ere iletsua izanda. Blguntasuna eta Blkoiztasunaren argltasunaren aZkena. BIZI biz-i, ez dauka generorik, bai bestela aditz bukaera berezien –i: eror-i, ikus-i, etorr-i, ibil-i..., bezala. Bizi-k eta itzali-k iz-itz daukate harremanean. BIZITZA Bizi multzoa, bizi anitza. BIZKAIA, biz-aren gaia. Biz izatera heldu ez dena. BIZKAR biz garra, biz-aren garra, biz-aren luzapena BIZKOR biz kor BIZTU, PIZTU, biz adiztua, bizitza ekintzan.</p> <p>Beraz, BIZ-ek eta GIZ-ek zihurra den kiski (-IZ) bera dute. Lehenago eztarriko G (giz) eta geroko ezpaineiko B (biz) ekarri eta akoskatu genituen arren.</p>
Arnaiz	<p>GIZA = El hombre (de sexo varon). Gizon = Hombre adulto, marido. En las lenguas usko-mediterraneas GIZA o GISA, se encuentra con el mismo significado en iberico, tartesico, bereber, hitita, eblaico, elamita, egipcio (Ref 3).</p> <p>Sin embargo, no se encuentra en etrusco; si se encuentra en esta lengua GULLARI que parece ser el equivalente de GUDARI=hombre luchador o soldado. Si que se encuentra MUJER ESPOSA=ANDERA (U), también NESKA=MUCHACHA, UNI (JAUNA)=SEÑORA.</p> <p>El binomio de matrimonio (GIZON-ANDERE) es de evolución posterior a la radiacion inicial de las lenguas usko-mediterraneas. Esta claro que los etruscos tenian otro concepto del matrimonio y de las relaciones hombre-mujer, que escandalizaron a romanos y, sobre todo, a griegos. El matriarcado etrusco ha sido probablemente el mas acusado de las culturas referidas. (Diccionario Etrusco-Euskera –Castellano;ref. 2 ;ref. 3).</p>
Mujika	<p>GIZ: Baiezko izadi eginkera menderatzaillea. Adimen argia(iz) oar bidez agertua. Gizadira iotzen du.</p> <p>GIZON: Oarmen eginkeran(on) argian adimen menderatzaille(giz). Bizi irudia, adimen argia, oardun eginkera dago. Gizon: on; oarmen eginkera, giz; adimen argia duena.</p>